

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Tintini kontu eske



Tintin eta haren sortzailea, Georges Rémi Hergé. Aurten 70 urte bete dira pertsonaia ezaguna jaio zela, eta ia 60 nazien okupazioak beraren historia baldintzatu zuela.

BRUSELA, 1929KO URTARRILA. Georges Rémi Hergé (1907-1983) marrazkilaria Tintin pertsonaiaren lehen abenturak, *Tintin sobieten herrialdean*, argitaratzen hasi zen emanaldika. Komikiaren atalak *Le Petit Vingtième* eman zituen, *Vingtième Siècle* egunkari katolikoaren barruan Hergék berak sortutako haurrentzako gehigarrian. Sobietarren aurkako lan hark berehalako arrakasta izan zuen eta pertsonaia jaioberria komikiaren historiaren izar nagusietakoa bilakatu zen.

Handik hamaika urtera, 1940ko udaberrian, alemaniarrek Belgika okupatu zuten. Nazien inbasioak eragin handia izan zuen, oro har, loratzen ari zen belgikar komikigintzan, eta bereziki Hergéren ibilbidean.

1942an AEBk Bigarren Mundu Gerran sartzea erabaki zuenean, alemaniarrek estatubatuarren komikiak debekatu zituzten okupatutako herrialdeetan eta, beraz, Belgikan. AEBkoa zen munduko komiki industria garatuena eta nazien erabakiak hutsune handia utzi zuen merkatuan. Hutsune hori betetzeko belgikar komikigileen lana sustatu zen, Edgar P. Jacobs, Jijé, Willy Vanderveen eta, noski, Hergérena. Hala, debekuari esker jauzi handia egin zen Belgikako marrazkilarien profesionalizazioan eta haien uztaren hedapenean.

Alemaniarren inbasioaren ondorioz, *Vingtième Siècle* egunkaria itxi egin zuten, baina Tintin ez zen luzaroan geldirik egon. 1940ko urrian bertan *Le Soir* egunkarian agertu zen, nazien propagandak germanofobia arintzeko eta anglofilia deuseztatzeko tresna gisa baliatu zuen agerkarian.

Bigarren Mundu Gerran Tintinen merkatua asko zabaldu zen. 1939an 34.000 album saldu zituen; 1940 eta 1945 bitartean, herrialdea nazien kontrolpean zegoenean, 324.000ra iritsi zen.

Gerra amaituta, ordea, kritika gogorak jasotzen hasi zen. Hergéri naziekin kolaboratzea egotzi zioten *Le Soir* entzat lan egiteagatik, eta arrazistatzen ere jo zuten, gerra aurreko Tintinen abentura bat oinarri hartuta. *Tintin Kongo* (1931) lanaren jatorrizko bertsioan Hergék afrikarrak gutxietsi zituen: pigmeoak giza zoo batean ageri dira eta bertako biztanleek elefanteek baino frantses kaxkarragoan hitz egiten zuten. Garai hartan, Kongo Belgikako kolonia nagusia zen eta Hergék garaiko pentsamoldea islatu zuela esanez babestu zuen bere burua. Nazien aldeko ustezko jarrera gezurtatzeko, berriz, hauxe botu zuen: “Nire lana baino ez nuen egin, meatzari batek, tranbia kobratzaile batek edo okin batek bezala”.

Arrastoak

Idazkun zaharrenak arriskuan dira

DAMAIDIKO MALKARRETAN (Txina) 10.000 inskripzio inguru aurkitu zituzten 2007an. Zeinu horiek Txinako Ningxia eskualdeko antzinako idazketari omen dagozkio eta, ondo bidean, idazketaren sorreraren kronologia 2.000 urtetan atzera dezakete. Baina Zhou Xinhua arkeologoak arrastoak arriskuan daudela dio: batek lehen estalita zeuden aztarnak azaleratzeak higadura areagotu du eta, bestetik, errepedeak eta azpiegiturak eraikitzen ari dira bertan. Grafito batzuk ezabatu dituztela eta, beraz, betiko galdu direla salatu du.



Damaidiko (Txina) malkarretako grabatu honetan giza eta zaldizko irudiak ageri dira. Aztarnategi berean, grafito figuratiboez gain, idazketaren historia goitik behera alda dezaketen inskripzioak ere aurkitu dituzte.